

2030 AGENDA EUSKADI SARIETARAKO OINARRIAK ETA JARRAIBIDEAK



Euskadi 2030 Agenda Saria
Premio Euskadi Agenda 2030



2025

2030 Agenda
Foroa
Euskadi

Iniciativa
Guneak
Ekimena

Agenda 2030
Euskadiren konpromisoa

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA

1. AINTZATESPEN-ESKEMAREN HELBURUAK

2. SARIEN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK

3. GJH KANPO-KONTRASTEAK

1. FASEA. Eskaera
2. FASEA. Kontrastea planifikatzea: aldez aurreko bilera, datak eta kontraste-taldea
3. FASEA. Kontrasterako dokumentazioa
4. FASEA. Kontrastearen garapena eta emaitza

4. GJH KLUBA

5. KONFIDENTZIALITASUNA

1. ERANSKINA: KONTRASTERAKO GALDERA-GIDOIA

2. ERANSKINA: KONTRASTEAREN AGENDA

1. AINTZATESPEN-ESKEMAREN HELBURUA

Aintzatespen-eskema honen lehen helburua sentsibilizazioa da:


- GJHeK eta 2030 agendak erakundeen lehiakortasun jasangarrian duten garrantziari buruz sentsibilizatzea.
- Erakundeen kudeaketan GJHak integratzearen garrantziari buruz sentsibilizatzea.

Horrez gain, erakundeek egindako aurrerapenak aitortzea eta hala, beste batzuentzat eredu izan daitezkeenak identifikatzea du helburu, bai eta mota guztietako erakundeen GJHeKin lotutako kudeaketa-jardunbide egokiak identifikatzea ere.

Horretarako, ebaluazio-eskema sinplea, mailakatua eta erakundearen emaitzak hobetzeko diseinatu da:

- Sinplea: dedikazio doituarekin, erakundeei ekarpenak eginez, baita kontraste-taldeetan parte hartzen duten pertsoneri ere, ikaskuntza hori beren erakundeetara zabal dezaten.
- Mailakatua: gero eta konplexutasun handiagokoa, erakunde bakoitzaren aurrerapen-mailaren arabera, eta erakunde bakoitzaren premietara edo lehentasunetara egokitua.
- Erakundearen emaitzak hobetzera bideratuta: GJHak kudeaketan txertatzeko markoa eta kanpo-kontrastea eragin handienak bilatzera bideratuta daude, erakundeak lehentasunezko zatitzat identifikatutako funtsezko alderdietan.

Euskadi 2030 Agenda Sariak hiru aintzatespen-maila ditu, erakundearen aurrerapen-mailaren arabera:

 Euskadi 2030 Agenda Saria ● Konpromisoa Premio Euskadi Agenda 2030	 Euskadi 2030 Agenda Saria ●● Bidean Premio Euskadi Agenda 2030	 Euskadi 2030 Agenda Saria ●●● Aurreratua Premio Euskadi Agenda 2030
KONPROMISOA MAILA	BIDEAN MAILA	MAILA AURRERATUA

Aintzatespen horien oinarrian [GJHak enpresen eta erakundeek kudeaketan txertatzeko markoa](#) dago, Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialeko eta Agenda 2030eko Idazkaritza Nagusiak eta EUSKALITek bultzatua, eta hainbat jarduera-eremutako ehun bat eragilek parte hartu dute beren ekarpenekin.

GJHetarako markoa hainbat arloetako galderen inguruan egituratzen da. Galdera horiek kontuan hartu beharko lirateke GJHak gure kudeaketa-sistemaren funtsezko elementu gisa txertatzean; izan ere, benetako konpromisoa ez ezik, eraginkorra eta **EMAITZETARA** bideratua izatea ere bilatzen da.

Era guztietako erakundeek erabili dezakete markoa, barruko ikuspegia (autoebaluazioa), eta kanpoko (kanpoko kontrastea) izateko, EUSKALITen eta ODS-GA ebaluazio-klubeko kideen laguntzarekin.

Autoebaluazioa egin ahal izateko, [web tresna](#) bat garatu da, erabilera autonomo eta librekoa, GJHei buruz eta horiek kudeaketa-elementu desberdinetan (Estrategia, Bezeroak, Pertsonak, Gizartea, Berrikuntza eta Emaitzak) izan dezaketen harremanari buruz modu egituratuan hausnartzeko.

Autoebaluazioa egitea da Euskadi 2030 Agenda Sariaren aintzatespenetako bat lortu nahi duen erakunde batek eman beharreko urratsetako bat.

2. AITORTZEN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK

Hurrengo taulan jasotzen dira Sari bakoitza lortzeko erakundeak bete behar dituen baldintzak. EUSKALITek egiaztatu egingo du baldintza hauek betetzen direla, eta, horretarako, aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du eta/edo online bilera bat egingo du erakundearekin.

SARI BAKOITZA LORTZEKO ERAKUNDEAK BETE BEHAR DITUEN BALDINTZAK			
	KONPROMISOA	BIDEAN	AURRERATUA
1. Erakundearen arduradun nagusiak berretsi egiten du erakundeak Garapen Jasangarriko Helburuak bultzatzeko duen konpromisoa.	-	BAI	BAI
2. Erakundean GJHei buruzko prestakuntza jaso da (zuzendaritza-taldeak, kudeaketa-arduradunek edo arlo horretako arduradunek...).	-	BAI	BAI
3. Erakundeak GJHei buruzko autoebaluazio osoa egin du: * erakundeko zuzendaritza-taldearen presentziarekin eta parte-hartzearekin * autoebaluazio-tresna gisa GJH-Kudeaketa Aurreratua Markoa edo bestelako tresnak eta gidak erabiliz (zehaztu zeintzuk).	1 autoebaluazioa egin da (aurrerapen-mailak beteta , gutxienez Esparruko galderen% 50ean eta Elementu bakoitzaren maila globalean). Inpaktu-Emaitzak atala bete behar da , erakundeak finkatutako helburu eta adierazle nagusiak eta horiei lotutako GJHak barne.	1 autoebaluazioa egin da	2 autoebaluazio edo gehiago egin dira, eta azkena, gutxienez, ODS-Kudeaketa Aurreratua esparruarekin
4. Erakundeak lehenetsi du zein GJHtan izan nahi duen eragina.	-	BAI	BAI
5. GJHak erakundearen estrategian integratuta daude (hausnarketa estrategikoan, urteko kudeaketa-planean, aginte-taulan...)	-	-	BAI
6. Erakundeak GJHak kudeaketa-elementuetan txertatzen ditu (estrategia, bezeroak, pertsonak, gizartea eta ingurumena, berrikuntza)	-	Partzialki	Kudeaketaren elementu guztietan (2. maila edo altuagoa elementuen balorazio globalean)
7. Erakundeak GJHein lotutako helburuak eta adierazleak ditu (dagokion informazioa eskatuko zaio erakundeari)	-	Bai, GJHein lotutako helburuak eta adierazleak erabiltzen dira	Bai, GJHein lotutako helburu eta adierazleak erabiltzen dira, eta horietako gehienek joera positiboak izan

			dituzte azken hiru urteetan.
8. Erakundeak GJHei buruzko ekintza-plana du (lehentasuna duten hobekuntza-eremuak identifikatu dira) Ekintza-planaren atalean lehenesten diren elementuei (estrategia, bezeroak, pertsonak...) lotutako etorkizuneko ekintzak jasotzen ditu.	BAI	BAI	BAI, behin baino gehiagotan zabaldua eta berrikusia
9. Erakundeak tresnak ditu interes-talde batzuek GJHei buruz dituen itxaropenak eta pertzepzioa ezagutzeko	-	-	Bai, neurriak eta interes-taldeak zehaztu (dagokion dokumentazioa eskatuko zaio erakundeari)
10. Erakundearen kudeaketan ardura duen pertsona bat gutxienez ODS Klubeko kidea da	-	-	Bai

3. GJH KANPO-KONTRASTEAK

Kontrastea erakundeko zuzendaritza-taldearen eta GJH Klubeko (kudeaketa aurreratuan eta GJHetan adituak) pertsonen arteko bilera bat da, erakundeari bere egoera hobeto ezagutzen laguntzeko kanpo-ikuspegi bat emateko, eta arlo horretako erronka nagusiak identifikatzen laguntzeko. Kontrastea jasotzeak, gainera, BIDEAN eta AURRERATUA sariak jasotzea ekar dezake, ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

Kontraste-taldeetan EUSKALITeko pertsona batek parte hartuko du, eta egin beharreko kontraste-motaren arabera, ODS klubeko beste pertsona batekin/batzuekin ere joango da. Taldeko EUSKALITeko kidea gainerako kontraste-taldearekin jarriko da harremanetan, zailak guztiak argitzeko eta kontrastea behar bezala prestatzeko.

Kontrastea goizeko saio batean egiten da (9:00etatik 13:00etara), dinamika parte-hartzaile eta eraikitzailea du, erakundea bera eta honen etorkizunerako hobekuntza garrantzitsuak ardatz dituenak. Gainera, kontrastearen ondorio nagusiak dokumentu labur batean jasotzen dira.

1. FASEA. Kontrastea eskatzea

Euskadin jarduten duen edozein erakunde publikok edo pribatuk jaso dezake kanpo-kontrastea. Horretarako, EUSKALITen [orritik osatu behar da eskaera](#).

2025ean ODS kontrastea jaso nahi duen erakundeak webgune bidez egin beharko du eskaera 2025eko maiatzaren 30a baino lehen.

2. FASEA. Kontrastea planifikatzea: aurretiko bilera, datak eta kontraste-taldea

Eskaera egin ondoren, EUSKALIT erakundearekin harremanetan jarriko da baldintzak egiaztatzeko aurretiko bileraren data zehazteko, kontraste-data ezartzeko eta erakundeak prestatu behar duen dokumentazioa kudeatzeko.

Erakundearentzako aurretiko bileran ikusiko balitz erakundeak ez dituela betetzen BIDEAN edo AURRERATUA aintzatespenak lortzeko baldintzak, ezingo du kanpo-kontrastea jaso, baina KONPROMISOA aintzatespena lortzeko orientatuko zaio.

Erakundeak BIDEAN edo AURRERATUA errekonozimendua lortzeko baldintzak betetzen baditu, kontraste-data jarriko zaio eta kontraste-ekiporik egokiena diseinatuko da (sektorearen, aurrerapen-mailaren, tamainaren eta abarren arabera).), ODS Klubeko 1-3 lagunek osatua. Interes-gatazkarik balego (zuzeneko lehia, ahaidetasuna, etab.) kontrastea baldintzatu lezakeen taldeko eta erakundeko pertsonaren baten artean, pertsona hori ordezkatzeko litzateke. Kontraste-taldeak konfidentzialtasun-konpromisoa sinatuko du, kanpo-kontrasteen parte hartu ahal izateko.

3. FASEA. Erakundeak prestatu beharreko dokumentazioa

Dokumentazioaren helburua da kontraste-taldeak kontrastea jasotzen duen erakundea ondo ezagutzea, eta hori funtsezkoa da modu egokian lagundu eta ekarpenak egin ahal izateko. Gainera, dokumentazioak EUSKALITi lagunduko dio berresten erakundeak BIDEAN edo AURRERATUA aitortpena lortzeko baldintzak betetzen dituela.

1. Erakundearen aurkezpena: Jarduera, produktu eta zerbitzu nagusien, bezeroen, pertsona-kopuruaren, lantokien eta abarren deskribapena. (erakundeak dituen dokumentuekin, hala nola jardueren memoriarekin, power pointeko aurkezpenekin... edo webgunearen bidez eskuragarri dagoen informazioarekin.

2. GJHen autoebaluazioa eta ekintza-plana: GJHak kudeaketan txertatzeko markoarekin edo beste tresna eta gida batzuekin egindako autodiagnostikoa, eta identifikatutako lan-ekintzen zerrenda/plana.

3. Jasangarritasunarekin eta GJHein lotuta erakundeak erabiltzen dituen beste dokumentu batzuk: adibidez, jasangarritasun-estrategia, planak, adierazleak... (ez da ezer prestatu behar, dagoeneko existitzen diren eta erabiltzen diren dokumentuak dira).

Kontraste-eguna baino 30 egun lehenago, gutxienez, bidali behar du erakundeak beharrezko dokumentazioa. Ahal dela, pdf formatuan bidaliko dira dokumentuak, ondo ikus daitezten. EUSKALITek egiaztatuko du dokumentazioa nahikoa dela eta ez gehiegizkoa, eta kontraste-taldearen esku jarriko du.

4. FASEA. Kontrastearen garapena eta emaitza

Kontrastean, erakundeak jasangarritasunean eta garapen jasangarriko helburuetan duen ibilbidea (iragana, oraina eta etorkizuna) azalduko du, eta, horretarako, kontrasterako gidoia erabiliko du (ikus 1. ERANSKINA).

Kontrastearen agenda orientagarria da, eta erakunde bakoitzaren errealitatera egokitu daiteke, baina eredu orokor bat dago (ikus 2. ERANSKINA).

Kontrastearen onura nagusiak hauek dira: erakundeak kontraste-jardunaldian hartzen dituen notak, hausnarketak dakarren ikaskuntza, pertsona guztien arteko eztabaida (erakundearenak eta erakundeaz kanpokoak), eta kontraste-taldearen jardunbide egokiez eta esperientziaz baliatzea.

Gainera, kontrastean zehar, dokumentu labur bat osatzen da, kontrastearen ondorio garrantzitsuenak jasotzen dituen, indargune nagusiak eta etorkizuneko ekintza garrantzitsu eta lehentasunezkoenak azpimarratuz, barne- eta kanpo-ikuspegia bateratuz. Kontraste-txosten horrek jaso dezake, halaber, kontraste-taldeak nola ikusten duen erakundea etorkizuneko urratsei begira.

4. GJH KLUBA

GJHei eta Kudeaketa Aurreratua Kluba euskal erakundeei arlo horietan modu altruistan laguntzeko interesa duten pertsonak osatzen dute, eta, aldi berean, GJHei eta Kudeaketa Aurreratuari buruzko ezagutza eta esperientzia areagotu eta garatu nahi dituztenak.

Pertsona horiek guztiek prestakuntza espezifiko jasotzen dute Markoari eta kontraste-dinamikari buruz, ekimen honetan parte hartu nahi duten erakundeei laguntzeko eta ezagutza hori beren erakundeetara hedatzeko.



Klub hau beti dago zabalik kide berriak hartzeko. Parte hartu nahi baduzu, Galder Lasueni idatziz eska diezaiokezu glasuen@euskalit.net

5. KONFIDENTZIALITASUNA

GJH kontrastearekin lotutako informazio guztia konfidentziasunez tratatuko da. Informazio hori kontraste-taldearentzat eta EUSKALITentzat bakarrik egongo da eskuragarri. Kontraste-taldeko pertsona guztiek konfidentziasun-dokumentu bat sinatzen dute, eta, haren bidez, konpromisoa hartzen dute prozesuan eskura ditzaketen informazioak ez argitaratzeko. EUSKALITek arrazoizko ekintza guztiak hartuko ditu isilpekotasun hori mantentzeko, eta neurri egokiak hartuko ditu baldin eta hura galdu dela uste badu. Nolanahi ere, EUSKALITek ezin du bere gain hartu kontraste-taldeak konfidentziasun-konpromiso hori haustea erakunde eskatzaileari eragin diezaiokeen edozein kalteren erantzukizuna.

1. ERANSKINA: GJH KONTRASTEAREN GIDOIA

Hauek dira kontraste-saioan landuko diren gaiak.

1. **Erakundeko pertsonen, kontraste-taldearen, kontrastearen helburuen eta saioaren dinamikaren aurkezpena.**
2. **Erakundearen aurkezpena:** Erakundeak bere ikuspegia, ibilbidea, egungo lana eta etorkizuneko ikuspegia aurkeztuko ditu laburki, GJHei dagokienez, ondoren azaltzen diren galderak oinarri gisa honako hauek erabiliz. Ostera ere, kontrastean beste galdera batzuk ere egin daitezke, bai orokorrak, bai kudeaketa-elementuei buruzkoak.
 - **Zein da erakundearen “jasangarritasunaren” ikuspegia?** Garapen jasangarria, GJH-Agenda 2030, GKE (Gizarte Erantzukizun Korporatiboa), ESG (Ingurumena, Soziala, Gobernantza), GJH batzuekin lotura duten eremu partzialak (berdintasuna, ingurumena, hizkuntza-kudeaketa, etab.), beste batzuk...
 - **Zein da GJH – Kudeaketa Aurreratua ikuspegiarekin lan egiteko motibazioa?** Zer faktorek eragin duten lana arlo horretan, non sortu den, nola... (bezeroaren baldintza? Lege-eskakizunak? arriskuen kudeaketa? borondatezko konpromisoa-motibazioa? ...)
 - **Zer ibilbide egin du erakundeak** jasangarritasunaren arloan? Noiztik, mugarri nagusiak...
 - **Zein baliabide eta ardura ezarri ditu erakundeak arlo horretan?** Nork bultzatzen ditu GJHak erakundean, nola antolatzen dira erantzukizunak: Arduraduna, taldea, saila... Inbertitutako baliabideak: aurrekontua, orduak, kanpoko laguntza...
 - **Zein dira erakundeak lehenetsitako GJHak?** Nola egin da lehenespen hori? Zein irizpide erabili dira?
 - **Nola hedatzen da ikuspegi hori erakundean?** Ba al dago ekintza planik helburu eta ekimen horiek lortzeko? Nola hedatzen dira GJHak erakundearen egunerokoan, zeregin, jarduera eta prozesu bakoitzean? Lehenetsitako GJHetako bati buruzko planen eta ekintzen adibideak, segimendua, adierazleak eta ebaluazioa.
 - **Erakundeak ezagutzen al ditu munduko, Europako, estatuko eta Euskadiko estrategia eta politika publikoak?** Haiekin lerrokatuta dago?
 - **Zer lankidetzak eta aliantza egin ditu erakundeak arlo horietan aurrera egiteko?** Foroetako eta taldeetako kide izatea, eta esperientziak trukatzea.
 - **Nola integratzen dira GJHak?** * Estrategian, beste kudeaketa-eredu edo -arau batzuekin (ISO, Kudeaketa Aurreratuaren Eredua) koherentzia beste politika batzuekin (ESG, GKE...) eta erakundearen nortasun-ezaugarriekin (Asmoa, Xedea, Ikuspegia, Balioak...).
 - **Erakundeak ezagutzen al ditu interes-talde batzuek GJHei buruz dituzten itxaropenak eta pertzepzioa?**

3. Kontrasteen zehar hausnarketarako erabili daitezkeen **beste galdera batzuk, orokorrak eta kudeaketa-elementuei lotutakoak (hautatu egokienak autoebaluazioa eta aurretik azaldutakoa kontuan hartuta):**

- Zeintzuk izan dira bide horretan aurkitutako zailtasun nagusiak?
- Zer espero du erakundeak kontrastetik? Zertan lagun dezake kontraste-taldeak (zalantzak, lehentasunak...)?

EMAITZEI LOTUTAKO GALDERA POSIBLEAK	1. Ba al dago adierazlerik edo metodologiarik GJHetan izandako lorpenen jarraipena eta neurketa egiteko? Zein forotan egiten da? Tresnarik erabiltzen da? sistematikoa da? Argi dago zein diren erakundearen inpaktu positiboak eta negatiboak (inpaktu globala)? 2. Zein da helburuak eta emaitzak finkatzeko logika? Nola ezartzen dira, zeren arabera? Nola zehazten den GJH bati (lehenetsitakoa) egiten zaion ekarpena nahikoa dela, garrantzitsua dela... ezarritako helburua proportzionala dela, egokia dela... Reporting-aren zailtasuna. 3. Koherenteak al dira erakundearen eraginak estrategian finkatutako lehentasunekin? 4. Zer hobekuntza-ziklo garatu dira adierazleen berrikuspenean eta zer aldaketa edo hobekuntza egin dira?
ESTRATEGIA	5. Hausnarketa horrek aukera eman al du arlo horrekin zerikusia duten politika, plan, adierazle edo helburuei koherentzia emateko? 6. Hausnarketa eta plan estrategikoetan ingurumen-faktoreak jasotzen al dira? Eta faktore sozialak? 7. Kanpo-ikasketa jarduerarik egin da? Benchmarkinga.
BEZEROAK	8. Zer eragin du negozio/jarduera nagusiak berak GJHetan (ekoizpen-prozesuak, banaketa, bizi-zikloa...)? 9. Baloratu da nola eragiten duten GJHei balio-katean eta nola laguntzen dioten horiek gure jasangarritasun-jarduerari, GJHei...?
PERTSONAK	10. Zenbateko parte-hartzea dute pertsonak GJHei buruzko politikak zehazteko edo helburu horiek lantzeko ekintzak zehazteko? Parte-hartzea, diziplina anitzeko taldeak, irizpideak, eskaini dezaketen denbora... 11. GJHak kontuan hartzen al dituzte pertsonak erakundearen kudeatzeko orduan? (profilak, inklusioa, generoa, adinkeria...)
GIZARTEA ETA INGURUMENA	12. Identifikatuta al dago eta ezagutzen al da eragin-ingurunea? Gizartea interes-taldearen definizioa egin da? 13. Inpaktu positiboak eta negatiboak, GJHein lotutako ekintzei eta gizarteari eta ingurumenari egindako ekarpenei buruzko kanpo-komunikazioa.
BERRIKUNTZA	14. Berrikuntza-proiektuak/ideiak hautatzeko orduan, kontuan hartzen al dira GJHak? Garatu duzuen eta GJHetan eragina izan duen berrikuntza-proiekturen bat? 15. Neurtzen al da proiektu berritzaileek GJHetan duten eragina? Horri buruzko helbururik ezartzen al da? Berariazko adierazlerik erabiltzen al da? Jakinarazten al dira lortutako emaitzak?

* **Horiz markatuta daude Aurreratua maila duten erakundeentzako interes berezia duten galderak.**

4. **Autoebaluazioaren errepaso azkarra:** Erakundeak egindako aurrerapen-mailaren balorazioei buruz taldeak egindako ekarpenak (adibideren bat erakundea “kalibratzen” laguntzeko), eta grafiko globalak edo ondorioek erakundearen aurrerapenik handiena eta txikiena behar bezala islatzen dutela uste duten partekatzea. Horretarako baliagarriak izan daitezke, halaber, erakundeak berak hobekuntza-plan gisa ezarri dituen ekimenak.
5. **Hobekuntza Planaren berrikuspen bateratua:** Zalantzarik al daude lehenetsi beharreko elementuei buruz? Jaso ez den eta garrantzitsua izan daitekeen zerbait... Zein dira erakundeak arlo horretan etorkizunean dituen planak? Eraman nahi den erritmoa, bilakaera, epe luzerako ikuspegia...
6. **Erakundeak arlo honetan izan ditzakeen jardunbide egokiak identifikatzea:** Erakundearen ustez, zein dira jardunbide egokiak alor horretan? Ezagutzen al dira beste erakunde batzuen jardunbide egokiak? Zer da erreferentzia sektorean?
7. **Kontrastearen ondorioak:** hitz egindakoaren laburpena, indargune nagusiak, etorkizunean eman daitezkeen urratsak...

2. ERANSKINA: KONTRASTEAREN AGENDA

9:00-9:15 Kanpo Kontrastearen eta parte-hartzaileen aurkezpena. Kontrastearen helburuak eta saioaren dinamika.

9:15-10:00 Erakundeak GJHein egindako ibilbidea modu laburrean azaltzen du, autoebaluazioaren ondorioekin batera.

10:00-11:00 GJHetan erakundeak dituen etorkizunerako erronken identifikazioa

- Galdera orokorreki eta Kudeaketa-elementuei lotutako gaiak

Atsedendia eta kafea

11:15-12:45 GJHetan erakundeak dituen etorkizunerako erronken identifikazioa:

- Autoebaluazioari errepaso azkarra
- Hobekuntza Planaren errepaso bateratua etorkizunari begira
- Jardunbide egokiak identifikatzea

12:45-13:00 Kontrastearen ondorioak

AMAIERA

9:00-9:15 Presentación de las personas de la organización y equipo de contraste, de los objetivos del contraste y de la dinámica de la sesión.

9:15-10:00 La organización resume el recorrido con los ODS y las conclusiones de la autoevaluación, utilizando como referencia el guion de preguntas.

10:00-11:00 Identificación de las prioridades de mejora en el ámbito de los ODS.

- Cuestiones ligadas a las preguntas generales y a los elementos de gestión

Pausa café

11:15-12:45 Identificación de las prioridades de mejora en el ámbito de los ODS:

- Repaso rápido a la autoevaluación
- Repaso conjunto del Plan de mejora de cara al futuro
- Identificar posibles buenas prácticas

12:45-13:00 Conclusiones del contraste

FIN

Agenda hau erakundearen tamaina, garapen-maila edota lan-erritmoaren arabera egokitu daiteke. Esta agenda es orientativa y puede adaptarse a las necesidades de la organización, al ritmo de trabajo, etc.